GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ERREPIDEEN ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK ETA ZARATAREN MAPAK EGITEKO ZERBITZUEN KONTRATURAKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA. 4. FASEA (1-ES-513-2021)

1.- AGIRIAREN HELBURUA

Agiri honen helburua da Gipuzkoako errepide-sareko zarataren mapa estrategikoak (ZME) eta zarataren mapak (ZP) eratzeko Zerbitzuen Kontratuaren xede izan behar diren arloak deskribatu eta zerrendatzea, eta Giro-zarataren Ebaluazioari eta Kudeaketari buruzko 2002/49/EE Europako Zuzentarauaren laugarren fasea eta Zarataren 37/2003 Legea, nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua betetzeko eskatutako dokumentazio teknikoa prestatzea; horretarako oinarri modura baliatu behar diren baldintza eta irizpide teknikoak definitzea eta dokumentu eta informatika-aplikazioen eduki eta eraketa zehaztea.

2.- AURREKARIAK

Giro-zarataren Ebaluazioari eta Kudeaketari buruzko 2002/49/EE Zuzentaraua eta Zarataren 37/2003 Legea betez, 2017ko urriaren 11n urtean 3.000.000 ibilgailutik gorako trafikoa duten Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideei dagozkien zarataren mapa estrategikoak behin betikoz onartu ziren, informazio publikorako izapidearen ondoren.

Zuzentarauak, era berean, ezartzen duenez, ZME mapak 5 urtean behin berritu egingo dira. Beraz, 2022. urtean aplikazioaren laugarren faseari dagozkion mapak entregatu egin beharko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ZME mapak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailera igorri beharko ditu, eta azken hori arduratuko da Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministeriora (TEEDM) bidaltzeaz. Ministerio horrek administrazio ezberdinek (estatukoek, erkidegokoek nahiz tokikoek) eratu behar dituzten zarataren mapa estrategikoak bildu eta Europako Batzordera igorriko ditu.

Bestalde, 2018ko urrian zarataren mapak onartu ziren behin betikoz Eusko Jaurlaritzaren 213/2012 Dekretua betez, 6000tik gorako eguneroko batez besteko intentsitatea (IMD) duten bide azpiegituretako zarataren mapak eratzea, Zuzentarauko helburu zorrotzena, eta gehienez 5 urtean behin berrikustea eskatzen duena.

3.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da urtean 3 milioi ibilgailutik gorako trafikoko Gipuzkoako errepide-sareko zarataren mapa estrategikoak eta 6000tik gorako IMD indizea (eguneroko batez besteko intentsitatea) duten errepideen zarataren mapa eratzea, 2002/49/EE Zuzentarauan, Zarataren 37/2003 Legean eta Eusko Jaurlaritzaren 213/2012 Dekretuan eskatzen den dokumentazio tekniko guztia prestatzea.

ZME mapak zona jakin batean zarataren eraginpean izatearen intentsitatea ebaluatu ahal izateko edo zona horretarako iragarpen orokorrak egin ahal izateko diseinatutako mapak dira. Funtsean, azpiegiturek sorrarazitako zarata mailei buruzko informazioa eman behar dute, zarata maila tarte ezberdinen eraginpean egondako populazioa ebaluatuz.

ZME mapek informazio hau jasoko dute:

1. Laburpen memoria: azpiegituraren deskribapena, zarata mailei, eraginpean egondako populazio nahiz azalerei buruzko datu adierazgarrienak eta zarataren aurka egindako esku-hartzeen laburpen bat jasotzen duen testu-dokumentua.

2. Planoak: lerro isofonoen bidez ebaluatutako zarata mailak ipintzen dituzte ikusgai eta eragindako populazioari buruzko datuak izaten dituzte atxikita.

3. Datu estatistikoak: datu administratibo nagusiak eta zarataren eraginpean egondako populazio eta azalera jasotzen dute.

4. INSPIRE 2007/2/EE zuzentaraua betetzeko eratutako datuen eredu berriaren araberako informazioa, formatu digitalean.

aholkularitza-enpresak Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak argitaratutako argibideei jarraiki prestatu eta helarazi beharko du dokumentazioa eta Europako Batzordeak ezarritako baterako formatuetan.

Aholkulariak honakoa prestatuko du: alde batetik, urtean 3 milioi ibilgailutik gorako trafikoa duten errepideei dagokien dokumentazioa (ZME) ,Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministeriora igortzeko eta, beste alde batetik, 6.000tik gorako IMD intentsitatea duten errepideen zarataren mapak (ZM), Eusko Jaurlaritzaren 213/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera eratuak.

4.- ESKU-HARTZE EREMUA

Kontratuaren xedea diren ZME eta ZM mapak errepide-tarte hauei dagokie:

Errepidea	Tartearen izena	Hasierako kilometro-puntua	Amaierako kilometro-puntua	Luzera (Km)
A-15	A-15_1	139,74	156,67	17,17
	A-15_2	158,73	169,31	10,57
AP-1	AP-1	114,25	146,54	32,28
	AP-1_130	0	1,28	1,28
	AP-1-133	0	0,75	0,75
AP-8	AP-8	0,00	74,49	74,49
	AP-8_1	0,09	0,28	0,19
N-I	N-I	405,45	455,08	50,81
N-634	N-634_1	0,00	4,00	3,90
	N-634_1_1	19,10	22,80	3,67
	N-634_2	29,70	30,93	1,15
	N-634_2_1	29,30	29,70	0,40
	N-634_3	54,00	65,91	12,33
A-636	A-636	0,00	22,73	22,73
N-121A	N-121A	68,46	75,04	6,56
N-638	N-638	0,00	2,41	2,41
N-636	N-636	31,00	31,90	0,90
GI-11	GI-11	0,00	2,69	2,54
GI-20	GI-20	0,00	15,87	15,74
	GI-20_5*	0,00	1,27	1,27
	GI-20_7*	0,00	0,86	0,86
	GI20_9	0,00	0,93	0,93
	GI-20_10	0,00	1,17	1,17
	GI-20_12	0,00	1,04	1,04
GI-40	GI-40	0,00	4,05	4,05
GI-41	GI-41	0,00	2,95	2,95
GI-627	GI-627	27,22	44,50	17,33
	GI-627_1	44,50	51,40	6,86
GI-631	GI631	0,00	19,08	19,05
GI-636	GI-636	0,00	17,33	17,17
	GI-636-H	0,00	0,48	0,48
GI-2132	GI-2132_1	0,00	5,15	5,15
	GI-2132_2	6,71	10,18	3,40
	GI-2132_3	15,29	15,59	0,30
	GI-2132_3_1	10,10	15,20	5,23
GI-2630	GI-2630_1	0,21	3,67	3,44
	GI-2630_2	20,22	23,47	3,53
GI-2631	GI-2631	0,00	4,80	4,79
GI-3401	GI-3401	0,00	1,16	1,16
GI-3452	GI-3452	0,00	0,66	0,66
GI-3722	GI-3722	2,49	5,74	3,19
GI-2130	GI-2130	0,10	8,00	7,91
GI-2634	GI-2634	28,80	38,76	9,97

GI-2637	GI-2637	0,17	4,00	3,78
GI-2638	GI-2638	0,56	4,93	4,35
GI-3410	GI-3410	0,34	5,60	5,24
GI-638	GI-638	0,00	4,70	3,24
	GUZTIRA Km			**398**

Ilunduta ageri dira Eusko Jaurlaritzaren 213/2012 Dekretua betez ezinbestez Zarataren Mapa eratzea eskatzen duten errepideak, baina ez Zarataren Mapa Estrategikorik, urtean 3 milioi ibilgailutik beherako trafikoa dutelako.

Kontratuaren xede diren errepideen barnean, mapa estrategikoko unitate (MEU) izendatu da unitate independentea den errepide batez osatutako elementuari. MEU bakoitzak bere identifikazio-kodea du, haren erreferentziazko kodea izango dena. Kode horiek irizpide hauen arabera definitu dira:

- MEU bat errepide bereko tarteekin dago osatua.
- MEU batek ezin du etenunerik izan; tarteak elkarren albokoak izan behar dira.
- Errepide berean MEU ezberdin ugari egon daiteke. Kasu horietan, MEU izendapenak errepidearen izena eta bereizteko digitu bat izaten ditu.
- Kalkulatze aldera, MEU batek trafiko-intentsitate edo errepidearen ezaugarri ezberdineko azpi-tarteak izan ditzake, baina eskuratzen diren emaitzak MEU oso bati buruzkoak izango dira beti, hala datu estatistikoak, nola geoespazialak zein planoak.

MEU unitateen kodetzea Europako Batzordearen aldetik jasotzen diren argibideei jarraiki egingo da.

Baldintza agiriko 1. eranskinean Gipuzkoako errepideen mapa islatzen da, kontratuaren xede diren tarteekin. Halaber, ZME eta ZM mapak eratzerakoan Kontratu Zuzendaritzak zehaztutako lotura bide-adarrak jasoko dira.

5.- BURUTZEKO LANEN DESKRIBAPENA

Ondoren, kontratu honen barnean egin behar diren lan guztiak deskribatzen dira. Horietako bakoitzerako programa bat egin beharko da nahitaez. Programa horretan, berori egiteko eta lanak planifikatzeko irizpideak jasoko dira eta, aldez aurretik, Kontratuaren Zuzendariaren onespena jaso beharko du.

5.1.- Aztergai den eremuaren zedarriztapena

MEU unitate bakoitzaren ZME maparen eraketan, aztergai den eremua MEU unitatean bertan zehazten den errepide-tartearen luzerak eta aldakorra izan daitekeen zabalera jakin bat duen zerrenda batek zedarrituko ditu.

Kalkulua egiteko aholkulariak tartearen hasieran eta amaieran errepidearen emisio akustikoaren jarraikortasuna kontuan izateko beharrezkoa den luzera luzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu, modu horretan, aztergai den tartean muturretako immisio soinu mailen kalkuluak behar besteko zorroztasunez egiteko.

Gainera, udalerri bakoitzean errepide ezberdinetako ekarpenen kalkulua jasotzen duten ZM mapak egin beharko dira.

Edozein kasutan, aztergai den eremuan Lden= 55 dB eta Ln = 50 dB immisio-mailei dagozkien isofonoek hartutako zonak barneratu beharko dira gutxienez.

5.2.- Modelizazio-agertokiaren zehaztapena

Atal honetan portaera akustikoarekin loturarik ez duten sarrera-datuen ezaugarriak deskribatzen dira, alderdi hori 5.4. atalean jorratzen baita.

Aholkularitza-enpresak aztergai den zona guztia 3D eran zehaztea ahalbidetzeko beharrezkoa den kartografi oro erabiliko du: Errepidea, lur mugakidea eta alboko oztopo eta eraikinak. Modu berean, ezinbestekoa da soinu-iturriei (trafikoaren baldintzak, plataformaren eta ardatzen zehaztapena, etab.) eta hargailuei (eraikineko altuerari eta populazioari buruzko datuak) nahi barreiatzearen aurkako hesiei (lur-erauzketak, pantaila akustikoen presentzia, etab.) dagozkien sarrera-datu guztiak behar besteko zehaztasunez finkatuta izatea eta azterketan bete asmo diren helburuak kontuan izanik egotea.

5.2.1.- Kartografia

Abiapuntu orokor modura, 1:5.000 eskalan lan egiten da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Saileko web-orrian eskuragarri dagoen kartografia erabiliz.

Aurreko ZME eta ZM mapak egiteko erabilitako kartografia helaraziko da, enpresa esleipendunak berrikusi eta eguneratu egin beharko duena.

Errepideko plataformari buruzko informazioa LIDAR kartografia edo 1/500 eskalako kartografia erabiliz eskuratuko da. Horrela, fokuaren ingurune kartografikoa bikaina zehaztuta geratuko da, errepidearen ertzeko alde banatan 25 metroko zerrenda batean metrotik metrorako altimetria-zehaztasuna exijituz gutxienez. Horrela, ezponda, lur-erauzketa eta oztopo adierazgarriak akustikoki zehaztuta geratuko dira, metro bateko zehaztasun batekin. Esleipendunaren ardura izango da beharrezkoa den lekuan kartografia osatzea eskatutako zehaztasuna ziurtatzeko.

Lurraren azken eredu digitala berrikusi egin beharko du esleipendunak ortoargazki eguneratuekin eta zonara egindako landa-laneko bisitekin, jaso gabeko balizko aldaketak identifikatze aldera, esate baterako, lur-dikeak edo errepideak sorrarazitako zarataren barreiaketa alda dezakeen beste edozein elementu topografiko.

5.2.2.- Eraikinak

Eraikin geruza 1/5000 eskalako kartografia, LIDAR kartografiako lur eta hegal ereduak eta 1/500 eskalan erabilgarri dagokion kartografia erabiliz zehaztuko da. Informazio hori jorratu egin beharko da modelizazioaren premietara egokitu dadin.

Hauek dira azterketan erabili beharreko eraikin geruzak bete behar dituen irizpide orokorrak:

- Eskatutako zehaztasuna etxadien eremuari dagokiona izango da.
- Ezingo dira eraikin bakar modura multzokatu argiro isolatu eta bereizita dauden eraikinak (baterako mehelinik gabe).

- Eraikinen oinarriaren eta errepidearen plataformaren artean kota erlatiboko aldea metro bateko zehaztasunez zehaztuko da 100 metroko distantziako tarte batean ardatzaren alde banatan.

- Hiri eremutan eta giro soinuaren gaineko inpaktuaren balizko tamainagatik aparteko garrantzia duten eremutan kartografian azterketa egindako datan zeuden eraikin guztiak jasotzen direla egiaztatu eta frogatuko da, dokumentatutako bisitekin edota ortoargazki eguneratuak atereaz. Horri dagokionez, eraikinen identifikazio automatikoan akatsik ez dela egiten ziurtatu behar da, adibidez, negutegi edo igerilekuen moduko elementuen presentziatik erator daitezkeenak.

- Errepideko ardatzaren hurbileko ingurunean (25 metro alda bakoitzean), ez da desdoikuntzarik onartuko topografiaren eta eraikinetako oinarriaren artean.

Behin beharrezkoak diren geruzak eskuratuta, zenbait tratamendu egin beharko dira altuera, populazio eta etxebizitza kopuruaren tasunak esleitzeko. Eraikinetako geruza 3D erako geruza bat izan beharko da, hau da, eraikin bakoitzera lotutako solairu kopuruarekin.

Eraikinen altuerari dagokionez irizpide hauek zehazten dira: gutxieneko altuera 4,5 metrokoa izango da eta altuera aztergai den zonako eraikin guztiei esleituko zaie, lurrari dagokion kota modura.

Eraikinen altuera solairu kopuruaren arabera esleitze baldin bada, irizpide hauek jarraituko dira:

- Bizitegi erako eraikinak, osasun eraikinak eta hezkuntzarakoak: lehendabiziko solairua 4,5 metro eta hurrengo solairuak 3 metro. Hiru solairu edo gehiagoko eraikinetan beheko solairua ez dagoela habitatuta ulertuko da.

- Eraikin industrialen kasuan, nabe bakoitzari dagokion altuera esleituko zaie.

Eraikinen erabilera: zonaren zonifikazio akustikoaren bidez lortuko da edo, halakorik izango ez balitz, hirigintza plangintzako informazioaren bidez. Informazio hori eragindako udalerrietako udalei eskatuko zaie eta ortoargazkiez lagunduta erkatuko da, eta baita landa-laneko bisitak eginez ere.

Erabilera hauek ezinbestez identifikatu beharko dira:

- bizitegi erakoa
- osasun eraikina
- hezkuntzakoa
- Industriala, tertziarioa edo besterik

Eraikinekin lotutako populazioa: eragindako udalerrietako udalei eskatuko zaie, eskuragarri baldin badago, eraikin bakoitzari esleituta, bestela, errolda-barrutien arabera, horiek zehaztuta.

Bigarren kasuan, zonako errolda-sekzio bakoitzerako populazioaren datuetatik abiatuz eta behin horietako bakoitzeko bizitegi erako eraikinak identifikatuta, populazioa modu proportzionalean banatuko da eraikitako azalera osoaren arabera (bizitegi erako eraiki bakoitzaren azaleraren batura = m^2 solairuan x solairu kopurua).

Eraikin bakoitzera esleitutako biztanle kopurua etxebizitza bakoitzeko biztanle batetik beherakoa denean, aplikatutako prozedura berrikusi egin beharko da balizko akatsak aztertzeko edo, bestela, hutsik dauden eraikinen edo bigarren bizitegi modura erabilitako eraikinen presentziarekin lotuta dagoenean kopuru hori eskuratutako emaitzak justifikatu egin beharko dira.

Etxebizitzak: errepideen zaratak eragindako etxebizitza kopurua lortzeko horrela jardungo da:

- errepideak sorrarazitako zaratak eragindako errolda-sekzio bakoitzeko etxebizitza kopuru osoaren datua balego, populazioaren kasuan erabilitako metodoaren antzekoa aplikatuko litzateke.

- Halako daturik izan ezean, eraikin bakoitzera esleitutako populazioaren datuetatik abiatuz, etxebizitza bakoitzean 2,7 biztanle bizi direla hartuko da.

5.2.3.- Errepidearen zehaztapena

MEU unitateetako ardatzak: bi ardatz geruza ezberdin zehaztuko dira: errepidearen aratza eta modelizazio-ardatzak.

Errepidearen ardatza: lerro bakar bat da eta MEU unitatean, haren luzera, lotutako trafikoa eta datu orokor guztiak zehazteko balioko du. Ardatza, hasiera batean, plataformako erdiko puntutik igaroko da. Errepide berean bereizitako plataformak baleude, ardatzaren zehaztapenerako jarraitutako irizpidea zehaztuko da.

Modelizazio-ardatzak: kalkulu akustikoak egiteko 2 ardatz erabili beharko dira, zirkulazioaren norabide bakoitzeko bat. Modelizatutako ardatz bakoitzari tarte bakoitzari dagokion trafikoaren erdia esleituko zaio. Bereizitako plataformen kasuan, plataforma bakarra aintzatesteko sinplifikazioa finkatu ahalko da, betiere, bi plataformen arteko kotan 2 metroko altueratik gorako aldea ez baldin badago edo plataformen arteko distantzia 25 metrotik gorakoa ez baldin bada.

Oro har, ez dira aintzatetsiko garrantzi urriko lotuneko bide-adarrak eta trafiko guztia zirkulazioko ardatz nagusiei esleituko zaie. Haatik, lotuneei dagozkien edukieraren xehetasunezko datuak jasotzen direnean, edo oinplanoan garapen handiko lotuneen kasuan, oso hurbil eraikinak dituzten zonetan kokatuta daudenean, Kontratu Zuzendaritzaren irizpideari jarraiki, bide-adarretan ardatz gehigarriak barneratuko dira. Baldintza agiriko 1. eranskinean jasotzen den mapan esku-hartze eremuko errepideak jasotzen dira, eta baita, beren garrantzia dela medio, ardatzak modelizatzeko garaian kontuan izan beharko diren lotuneak ere.

Plataforma: eskuragarri dagokion informazio kartografikotik abiatuz, errepidearen plataforma irudikatzeko geruza bereizi bat zehaztuko da, berariaz. Geruza hori ardatza igarotzen den azalera osatzen duten erpinekin (polilineak 3 dimentsiotan) bat etorriko da. Plataforma bat edo bi zehaztuko dira aurreko atalean ezarritako irizpideak jarraituz.

Zoladura: ikerketan errepidearen zoladura mota jaso beharko da.

Modelizatze aldera, Kontratu Zuzendaritzak errepide-tarte bakoitzeko zoladura motari buruko informazioa emango dio aholkulariari, konbentzionala edo drainatzailea ote den adieraziz.

5.2.4.- Trafikoa

Eskatzen diren 3 periodotan, hots, egunez (7-19 bitartean), arratsaldez (19-23 bitartean) eta gauez (23-7 bitartean), soinu mailak kalkulatzeko erabilitako trafikoari buruzko oinarrizko datuak Kontratu Zuzendaritzak helaraziko ditu.

5.2.5.- Pantaila akustikoak

Ikergai diren errepideetan dauden halako elementu moten inbentarioa eguneratu egin beharko da. Elementu multzo horren barnean pantaila akustikoak eta hormak barneratzen dira.

Elementu horiek kontuan izan beharko dira ikerketan eta esleipendunaren zeregina izango da horiek identifikatu, oinplanoan kokatu eta altuera eta propietate akustikoak esleitzea.

Oztopoak garrantzia bereziko elementuak dira ikerketan eta, horrenbestez, arreta bereziz modelizatu beharko dira. Segidan horretarako zenbat jarraibide atxikitzen dira:

- Lekuan bertan bermatutako oztopo/pantailen kasuan, aintzatesteko pantailaren altuera erreala izango da, oztopoaren luzetarako profila zehaztuz.

- Biaduktu gainean kokatutako oztopo/pantailen kasuan elementu horietarako altuera erlatibo bakar bat onartuko da.

5.2.6.- Tunelak eta biaduktuak

Ikerketan kontuan izan beharko dira eta esleipendunaren zeregina izango da horiek identifikatu eta oinplanoan kokatzea.

5.3.- Zonifikazio akustikoa

Halakorik balego, MEU unitateak zeharkatzen dituen udalerrietako zonifikazio akustikoari buruzko datuak jasoko dira.

Eskuragarri dagoen informazioarekin bat etorriz planoak taxutuko dira. Plano horietan informazio hau jasoko da:

- Zona bakoitzaren zonifikazio akustikoa eta esleitutako muga-balioak eta kalitatearekin lotutako helburuak.

- Ingurumen legeriak babestutako zonak eta horiek soinu giroaren babesarekin duten harremana.

Udalerri guztiek zonifikazio akustikoa oraindik eginda ez balute, hori egitea falta den udalerrietan, zonifikazioko plano baliokide bat egingo da lurzoruaren erabilera nagusien arabera, Zarataren Legean eta dagozkion Erregelamenduetan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

5.4.- Soinu mailan ebaluazioa

5.4.1.- Adierazleak

Hauek dira zarataren mapa estrategikoak eratzeko aplikatuko diren adierazleak: Ld, Le, Ln eta Lden, Zarataren Legean eta dagozkion Erregelamenduetan zehazten den eran. Ld, Le, Ln eta Lden adierazleen ebaluazio-puntuaren altuera 4 metrokoa da zoruaren mailarengandik.

Eraikinen fatxadetan zarata mailak ebaluatzeko soinu intzidentea soilik aintzatetsiko da, hau da, ebaluazioa egiten den eraikineko fatxadan islatutako soinua ez da aintzatetsiko, nahiz eta aztergai den eremuan dauden gainerako eraikin eta oztopoetako islapenak kontuan hartuko diren.

5.4.2.- Kalkulatzeko metodoa

Kalkulua egiteko metodoa CNOSSOS-EU baterako metodo berria izan beharko da, 2015/996/EE Zuzentarauan eta hura Espainiako araudira PCI/1319/2018 Aginduaren bidez ekartzeko ezartzen den eran. **Berau aplikatzeko TEEDM ministeriotik helarazitako aribideak jarraituko dira.**

Hala beharrezkoak diren sarrera-datuetan nola aurreko mapetan metodo frantsesarekin egindako kalkuluan eskuratutako emaitzetan ezberdintasunak aztertzen dituzten proposamenak balioetsi egingo dira.

5.5.- Kalkulu akustikoen emaitza

Behin soinu mailen kalkuluak eginda, hurrengo mapa eta taulak sortuko dira:

5.5.1.- Soinu mailen mapak

Aztergai den zona guztian zehar puntu hartzailetan kalkulatutako zarata mailetatik abiatuta egindako lerro isofonoen mapak dira.

Hauek dira sortu beharreko mapak:

- Ld adierazlearen soinu mailen mapa dB-tan, zoruaren mailatik 4 metroko altuerara, hurrengo heinak zedarritzen dituzten lerro isofonoak irudikatuta: 55-59, 60-64, 65-69,70-74, ≥75.

- Le adierazlearen soinu mailen mapa dB-tan, zoruaren mailatik 4 metroko altuerara, hurrengo heinak zedarritzen dituzten lerro isofonoak irudikatuta: 55-59, 60-64, 65-69,70-74, ≥75.

- Ln adierazlearen soinu mailen mapa dB-tan, zoruaren mailatik 4 metroko altuerara, hurrengo heinak zedarritzen dituzten lerro isofonoak irudikatuta: 50-54, 55-59, 60-64,65-69, ≥70.

- Lden adierazlearen soinu mailen mapa dB-tan, zoruaren mailatik 4 metroko altuerara, hurrengo heinak zedarritzen dituzten lerro isofonoak irudikatuta: 55-59, 60-64, 65-69,70-74, ≥75.

5.5.2.- Eragin-eremuen mapa

Lden adierazlearen soinu mailen mapatik abiatuz eskuratuko da.

Guztizko azaleren (km^2tan) datuak jasoko ditu, 55, 65 eta 75 dBtik gorako Lden balioen eraginpekoak, hurrenez hurren. Gainera, zona horietako bakoitzean bizi diren etxebizitzen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda) adieraziko da.

55, 65 eta 75 dB-ei dagozkien isofonoak mapan agertuko dira eta kurba horien barnean kokatutako hiri eta herrien kokapenari buruzko informazioa barneratuko da.

Hein horietan dauden etxebizitza eta populazioaren datua eskuratzeko, erabiltzeko metodologia justifikatu egingo da, eraikin osoa haren fatxadetako edozeinek duen isofono kaltegarrienaren eraginpean izango dela edo bestelako aukerak kontuan izatea balioetsiz.

5.5.3.- Zonifikazio akustikoa

Eragindako udalerriek onartutako zonifikazio akustikoak irudikatzeko mapa bat eratuko da. Zona motak bat etorri beharko dira Zarataren Legean eta urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, zonifikazio akustikoari, kalitatearen helburuei eta emisio akustikoei dagokienez Zarataren Legea garatzekoan, zehaztutakoekin.

5.5.4.- Gatazka-eremuen mapa

Ld, Le eta Ln adierazleetarako eskuratzen diren soinu mailak lurraldeko zona bakoitzari esleitutako hots-kalitatearen helburuekin (ikus 1367/2007 Errege Dekretuaren II. eranskina) alderatuz eskuratuko da.

Gatazken mapa zonifikazio akustikoko maparen gainean eratuko da eta kalitatearen zenbait helburu gainditzen dituzten zona akustikoak jasoko dira bertan, kasu kaltegarrienerako dagokion adierazlea eta kalitatearekin lotutako dagokion helburua zenbat dezibeletan gainditzen den zenbakitan adierazita.

5.5.5.- Zortasun akustikoen mapa

Zortasun-zonak errepidearen funtzionamendu beteko egoera kontuan izanik zehaztuko dira, egoera hori ingurunean inpaktu akustiko gehien sorrarazten duen hura dela ulertuta. Eskaintzan zortasun akustikoko zona zehazteko metodologia eta irizpideak justifikatuko dira.

5.5.6.- Eraginpeko populazioaren taulak

Taula horien helburua da etxebizitza-eraikinetako fatxadetan dauden zarata mailak etxebizitza kopuruarekin eta horietan bizi diren pertsona kopuruarekin lotzen dituzten datuak aurkeztea, eta MEU bakoitzerako informazio hau jasoko dute:

- Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Ld adierazlearen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden etxebizitzetan bizi ziren pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda): 55-59, 60-64, 65-69, 70-74, ≥75.

  Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Ld adierazlearen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden etxebizitzetan pilaketetatik kanpo dauden pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda): 55-59, 60-64, 65-69, 70-74, ≥75.

- Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Le adierazlearen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden etxebizitzetan bizi ziren pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda): 55-59, 60-64, 65-69, 70-74, ≥75.

  Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Le adierazlearen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden etxebizitzetan pilaketetatik kanpo dauden pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda): 55-59, 60-64, 65-69, 70-74, ≥75.

- Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Ln adierazlearen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden

etxebizitzetan bizi ziren pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda): 50-54, 55-59, 60-64, 65-69, ≥70.

Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Ln adierazlearen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden etxebizitzetan pilaketetatik kanpo dauden pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda): 50-54, 55-59, 60-64, 65-69, ≥70.

- Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Lden adierazlearen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden etxebizitzetan bizi ziren pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda): 55-59, 60-64, 65-69, 70-74, ≥75.

Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Lden adierazlearen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden etxebizitzetan pilaketetatik kanpo dauden pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda): 55-59, 60-64, 65-69, 70-74, ≥75.

5.5.7.- Eragin handieneko zonen analisia

Gipuzkoako Foru Aldundiak erreferentziazko mailetatik gorako zarata mailen eragin handiena jasotzen duten zonak behar bezala identifikatzeko interesa du, esku-hartzeko lehentasunak ezarri ahal izateko. Horretarako, zarataren mapa estrategikoetatik jasotzen den informazioa kudeaketarekin lotutako beste adierazle batzuekin osatu behar da ezinbestez.

Eskaintzan helburu horri erantzuteko proposamena justifikatuko da, esku-hartzeko lehentasunak zehazteko erabiltzeko metodologia eta adierazleak zehaztuz.

Atal honetan dagokion mailatik gorako zarata mailen eraginpean dauden eraikin sentsibleen kopuruaren ebaluazioa eta eraikin sentsibleetan dagoen eraginpeko populazioaren kalkulua jasoko da.

Esleipendunak errepideak zona homogeneotan tartekatzea proposatuko da, hasierako kilometro-puntu batekin eta amaierako kilometro-puntu batekin zedarrituta, horietan eraginpeko populazioari buruz eta eraginpeko eraikin sentsibleei buruz jasotako balioak alderatzeko moduan.

Zona bakoitzaren eragin-mailaren ebaluazioa egiteko eraginpeko populazio eta eraikin sentsibleetatik eskuratutako emaitzak konbinatu egingo dira, modu horretan, eragin-mailaren sailkapen bat erdietsiz; esate baterako, handia, ertaina eta urria.

5.6. - Laguntza informazio publikoko prozesuetan

Aholkularitza-enpresak informazio publikoko dagozkion prozesuak egiteko beharrezkoa den dokumentazioa prestatuko du eta jasotako alegazioei erantzuteko laguntza emango du. Halaber, alegazio horiek artatzearen ondorioz ZME eta ZM mapetan egiteko aldaketak aplikatuko ditu.

6.- TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOARI IGORTZEKO DOKUMENTAZIOA

Lanen esleipenduna den enpresak laugarren faseko zarataren mapa estrategikoarekin lotutako datuak helarazteko dokumentazioa Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak helarazitako argibideekin bat etorriz prestatu beharko ditu.

TEEDM ministeriora igorri beharreko dokumentazioaren zati bat Bide Azpiegitura Saileko web-orrian argitaratuko da; beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan hizkuntza ofizialen erabilera 2008-2012 aldirako arautzen duen urtarrilaren 27ko 4/2009 Foru Dekretua betez, **bi hizkuntza ofizialetan helarazi beharko da, euskaraz eta gaztelaniaz.**

Igortzeko mapa estrategikoetako dokumentazioak lau informazio-eduki ditu:

6.1.- Laburpen memoria

Laburpen memoriak MEU unitate guztien emaitzak jasoko ditu, modu bereizian aztertuta, eta informazio hau jasoko du:

a) MEU unitatearen deskribapen laburra: izena, hura osatzen duten errepide-tarteak, kokapena, trafikoa, luzera.

b) Agintaritza arduraduna.

c) Iraganean zarataren aurkako borrokarako gauzatutako programak eta indarreko neurriak.

d) Mapak eratzeko erabilitako neurketa edo kalkulurako metodoak.

e) Lden, Ld eta Le adierazleetarako pilaketatik kanpo eraginpeko pertsonen guztizko kopurua. "Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Lden, Ld eta Le adierazleen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden etxebizitzetan bizi ziren pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua adierazi behar da (ehunenetan emanda): 55-59, 60-64, 65-69, 70-74, ≥75.

f) Ln adierazlerako pilaketatik kanpo eraginpeko pertsonen guztizko kopurua. "Eragin handieneko fatxadan, eta lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran, dB-tan emandako Ln adierazlearen balio-hein hauetako bakoitzaren eraginpean dauden etxebizitzetan bizi ziren pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua adierazi behar da (ehunenetan emanda): 50-54, 55-59, 60-64, 65-69, ≥70.

g) Azalera osoa, eraginpeko etxebizitzak eta populazioa (Lden). Hurrenez hurren, 55, 65 eta 75 dBtik gorako Lden balioen eraginpeko azalera osoa (km^2tan emanda) adierazi behar da. Horrez gain, zona horietako bakoitzean dauden etxebizitzen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda) eta horietan bizi diren pertsonen gutxi gorabeherako guztizko kopurua (ehunenetan emanda) adieraziko da.

Laburpen memoria paperean, DIN A-4 formatuan, eta informatika-fitxategi batean, dokumentua Pdf nahiz word formatuan jasoz, helaraziko da. **Memoriak bi fitxategi izango ditu, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.**

6.2.- Planoak

Zarataren mapa estrategikoei dagozkien planoetan adierazle bakoitzerako ebaluatutako zarata mailei buruzko eta maila tarte ezberdinek eragindako populazioari buruzko informazioa jaso beharko da. Horrenbestez, planoetan balioen taula bat gaineratu beharko da.

Mapak 1/5.000 eskalako oinarri kartografiko bat eta 1/500 eskalako beste bat erabiliz kalkulatuko dira, eskuragarri dagoen informazio kartografikoarekin bat etorriz, nahiz eta planoak irudikatzeko eskala 1/25.000 izango den eta formatua DIN-A3. Horrenbestez, planoak 1/25.000 eskalan egoki eta modu irakurgarrian irudikatzeko beharrezkoak diren eragiketak burutuko dira.

MEU unitatearen lurralde hedadura dela medio beharrezkoa denean, hura komeni den eran zenbakitutako lauki homogeneo batean banatuko da.

Emaitzak irudikatzeko beste zenbait alternatiba planteatu ahal izango dira, betiere, goran proposatutako irtenbidearekin alderatuz emaitzen kontsulta hobetzen baldin bada eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren eskakizunekin bat baldin badatoz.

MEU bakoitzerako gutxienez sortuko diren planoak 5.5.1 eta 5.5.2 ataletan zehaztutako soinu mailen mapak eta eraginen mapak izango dira. ZM mapen kasuan, mapak udalerrika irudikatuko dira.

Mailak lerro isofonoen bidez irudikatuko dira grafikoki, tarteak bereizteko Zuzendaritzak eskatutako koloreak erabiliz.

Mapek geoerreferentziazioa jasoko dute eta ertzetan sare bat adieraziko da koordenatuekin.

Mapen dokumentazioa formatu elebidunean (euskaraz eta gaztelaniaz) edo bi fitxategitan (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz) helaraziko da, pdf formatuan, UME eta mapa mota bakoitzeko, emaitzak kontsultatzeko moduan eta A3 formatuan inprimatzea ahalbidetuz.

Mapak Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak ezarritako irizpideak betez kodetu beharko dira. Planoen fitxategi guztietan lehendabiziko orrialdea MEU unitatea orrien arabera banatzeko eskema izango da. Eskema hori MEU unitateko zona jakin bat zein orrialderi dagokion lokalizatzeko behar bezain zehatza izan beharko da.

Fitxategien tamaina ahalik eta gehien minimizatzeko ahalegina egingo da, eta ez dira gomendatzen 20 megabytetik gorako fitxategiak. Horretarako, fitxategiak ikusteko beharrezkoak ez diren aukera eta lotura guztiak baztertu egingo dira. Planoetan jasotzen den informazioa xehetasun handikoa denez, inprimaketaren bereizmena 300ekoa izatea eskatuko da, tamainaren eta irudikapenaren kalitatearen artean oreka egokia lortzeko.

6.3.- Datu estatistikoak eta espazialak:

Datu estatistiko eta espazialak TEEDM ministerioak argitaratutako argibideen arabera taxutuko dira. GeoPackage motako fitxategi batean jasoko dira, zeinaren eredua helarazi egingo den.

Sortutako informazioa kudeatzeko tresna bat, QGIS euskarrian, barneratzen duten proposamenak balioetsi egingo dira, administrazio klausulen agirian ezarritakoarekin bat etorriz.

7.- EUSKO JAURLARITZAREN INGURUMENEKO SAILBURUORDETZARA IGORTZEKO DOKUMENTAZIOA

Lanen esleipendun den enpresak zarataren mapekin lotutako datuak Eusko Jaurlaritzaren 213/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera helarazteko dokumentazioa prestatu beharko du. Hau izango da zarataren mapak onartzeko prozedura:

- Aholkularitza-enpresak ZM mapak taxutuko ditu, informazio publikoko izapidearen aurretik, mapetan jasotzen diren lurraldeetako udalei igorri beharko zaizkienak. Udalek 30 egun balioduneko epean txosten bat igorriko dute, komenigarritzat jotzen dituzten oharrekin.

- Enpresak laguntza eskainiko du jasotako oharren erantzunetan. Halaber, alegazio horiek artatzearen ondorioz ZM mapetan egiteko aldaketak aplikatuko ditu.

- Beranduago, ZM mapak informazio publikoko izapidera eramango dira gutxienez hilabeteko epez. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkarian iragarriko da, edozein pertsonak, fisiko zein juridikok, dagokion dokumentazioa eta jarraitutako prozedura aztertzeko aukera izan dezan.

- Enpresak informazio publikoko izapidean zehar jasotako alegazioen erantzunean laguntza emango du. Halaber, alegazio horiek artatzearen ondorioz ZM mapetan egiteko aldaketak aplikatuko ditu.

- Aldundiak, egindako alegazioak kontuan izanik, ZM mapak onartu egingo ditu, beranduenez, alegazioak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabeteko epean. ZM mapak onartzeko erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkarian argitaratuko da.

- Behin, ZM mapak, onartuta, enpresak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumeneko Sailburuordetzara igortzeko dokumentazioa prestatuko du, formatu digitalean, lotutako analisirako dokumentuak eta dokumentazio grafikoa barne. Mapen dokumentazioa formatu elebidunean (euskaraz eta gaztelaniaz) edo bi fitxategitan (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz) helaraziko da, pdf formatuan mapa bakoitzeko, emaitzak kontsultatzeko moduan eta A3 formatuan inprimatzea ahalbidetuz.

8.- LANEN ZUZENDARITZA

Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak lanen zuzendaritzako talde bat izendatuko du eta talde horretan pertsona bat Kontratuaren Arduradun izendatuko da. Lanen Zuzendaritzak zuzendaritza eta ikuskaritza lanak egingo ditu ikuspuntu tekniko, administratibo eta ekonomikotik begiratuta, eta aholkularitza-enpresaren jardueran jarraitu beharreko irizpideak eta ildo orokorrak ezarriko ditu, lan horiek ahalik eta hobekien erantzun diezaien Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak lortu nahi dituen helburuei. Zehazki, eskumen hauek izango ditu:

- Preskripzio Teknikoen Agiria interpretatzea eta Kontratazio Organoari aldaketak onartzea proposatzea, horrek aurrekontuan edota lanen erredakziorako epean izen dezakeen eragina balioetsiz.

- Enpresak aplikatu behar dituen irizpideak ezartzea eta zehaztea, eta hark egiten dituen lanen garapena ikuskatzea.

- Enpresari lanak ordaintzeko ziurtagiriak ematea, honi dagokionez Kontratuko Administrazio Klausula Partikularren Agirian ezarriarekin bat.

- Enpresak proposatutako Laneko Planari buruzko txostena ematea, Kontratazio Organoak onespena ematera begira.

- Enpresari beharrezko kredentzialak ematea eta Errepideetako Zuzendaritza Nagusiaren barnean zein beste Erakunde Ofizial batzuetan haren jarduera koordinatzea.

Lanen Hasierako Akta sinatzen denetik zenbatzen hasi eta zazpi eguneko epean aholkularitza-enpresak garatzeko lan guztien plangintza bat aurkeztuko dio Kontratu Zuzendaritzari. Zuzendaritzak aldaketak sartu ahal izango dizkio plan horri, operazioen irismen, sekuentzia eta antolamenduari eta, oro har, Kontratuaren azken edukiari eragin diezaioketen eginkizun guztiei dagokienez.

9.- KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

Laguntza Teknikoko Kontratu hau egiteko epea 18 HILABETEKOA izango da. **ZME** mapak **2022ko maiatzaren 31rako** eginda egon beharko dira **informazio publikora** eramateko, eta informazio publikoaren ondorioz mapetan egiteko aldaketak 2022ko irailaren 1erako egin beharko dira, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailera entregatzea aurreikusitako eta **TEEDM ministeriora entregatzeko** epean bidali ahal izateko, **2022ko irailaren 30a baino lehen.**

ZM mapak Udalei 2022ko uztailaren 30ean kontsulta egiteko faserako eratuta egon behar dira eta **informazio publikorako 2022ko urriaren 30ean.** Informazio publikoaren ondorioz mapetan egiteko aldaketak 2023ko urtarrilaren 31rako egin beharko dira, mapak Eusko Jaurlaritzara 2023ko otsailean igorri ahal izate aldera.

10.- BITARTEKOAK JARTZEA

Kontratu honek kontratatzen diren lanak egoki eta unerik egokienean egiteko pertsonala eta bitarteko materialak jasotzen ditu.

Aholkularitza-enpresak lanak egiteko gizatalde bat izendatuko du, kontratuaren xede den arloan gaitasun tekniko eta esperientzia egiaztatua izan beharko duena. Lantaldea *Bitartekoak Jartzea izeneko 2. eranskinean* zehazten diren lanpostuez osatuko da gutxienez.

Bitarteko materialei dagokienez, CNOSSOS-EU metodoa aplikatzeko aukera ematen duen aplikazio informatiko espezializatu bat izan beharko da.

11.- LANEN MARTXARI BURUZKO TXOSTENAK

Enpresak, Delegatuaren bitartez, lehen lan-astean lanen programa bat aurkeztuko du. Bertan lan horietarako plan partzialak zehaztuko dira eta Kontratu Zuzendaritzari kontratuaren xede diren lanen martxa orokorrari buruzko informazioa helaraziko dio idatziz, hark hala eskatzen duen bakoitzean.

Kontratuaren epea amaitu baino lehenago, haren dokumentu osoa emango zaio Kontratu Zuzendaritzari, honek aztertu ondoren eskatzen diren aldaketak egin eta behin betiko dokumentua editatu eta onartutako gauzatze epearen barnean emateko. Enpresaren erantzukizuna da Agiri honetan deskribatutako lan guztiak egitea, garatu behar den laneko eskematik ondorioztatzen diren dokumentuak mekanografiatzea, erreproduzitzea eta editatzea barne.

12.- LANAK AURKEZTEA

Enpresak egindako lanak UNE A-4 (taulak) eta A-3 (mapak) formatuan aurkeztuko dira. Idatzizko testuen eta planoen jatorrizkoak aurkezteaz gain, enpresak beste bi (2) ale helaraziko dizkio Administrazioari behar bezala koadernatuta. Ale horietako bakoitzak liburuki bat edo gehiago izango ditu, lodieraren arabera. Dena den, liburuki bakoitzak, asko jota ere, zortzi (8) cm-ko lodiera izango du. Liburuki bakoitzak hura behar bezala identifikatzeko kanpoaldeko azalak eta aurkibidea izango ditu.

Era berean, fitxategi informatikoen bi kopia helaraziko dira irudikapen grafikoarekin eta informatika-euskarriekin.

13.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa enpresak eskainiko du, eta ezingo da **BERREHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BI EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMOTIK (255.942,23 €)** gorakoa izan **(BEZ barne).**

Zenbatekoa horrela ordainduko da:

- % 15 dokumentua entregatzean eskuragarri dagoen informazioa eta abiapuntuko datuak bildu eta aztertuta.
- % 40 soinu mailen, eragin-eremuen, zonifikazio akustikoaren eta gatazka-eremuen mapak, eta eraginpeko populazioaren taulak helaraztean.
- % 15 zortasun akustikoen mapak eta eragin handieneko zonen analisia helaraztean.
- % 10 Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministeriora igortzeko dokumentazioa helaraztean
- % 10 Eusko Jaurlaritzaren Ingurumeneko Sailburuordetzara igortzeko dokumentazioa helaraztean
- % 10 kudeaketarako tresna bat ezartzean, QGIS euskarrian

Enpresaren proposamenean kontratua behar bezala gauzatzeko enpresak ordaindu beharreko gastu guztiez gain, kontratu horretatik ondorioztatzen diren zerga, tasa eta tributu guztiak sartutzat emango dira, batez ere Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

Donostian, 2021.eko maiatzaren 24a

BIDE KANAL ETA PORTUEN INGENIARIA

Fdo.: Cecilia Barranco Ledo

BIDE AZPIEGITUREN BIRGAITZE ZERBITZUKO ETA BULEGO TEKNIKOKO BURUA

Fdo.: Susana Luzuriaga Mocoroa

1. eranskina

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ERREPIDEEN ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK ETA ZARATAREN MAPAK EGITEKO ZERBITZUEN KONTRATURAKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.
4. FASEA (1-ES-513-2021)

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES DEL CONTRATO DE SERVICIOS PARA LA ELABORACIÓN DE LOS MAPAS ESTRATÉGICOS DE RUIDO Y MAPAS DE RUIDO DE LAS CARRETERAS DE LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA
FASE4 (1-ES-513-2021)



PLT-C-2021-0008

2. ERANSKINA – LANGILEAK JARTZEA

Talde aholkularia osatuko duten langileen gutxieneko zuzkidura horien titulazioa eta espezializazioa, kargua, esperientzia eta kontratuarekin lotutako dedikazioa adierazita:

ZK.	LANBIDEA ETA ESPERIENTZIA (1)	KARGUA KONTRATUAN	UNITATE KOPURUA	GUTXIENEKO ESPERIENTZIA	DEDIKAZIO AURREIKUS GARRIA (2)
1	Fisika, Matematika, Ingeniaritza Gradu edo Masterreko Teknikaria ziurtagiri akademikoarekin edo horietako lehengo prestakuntza akademiko baliokideak Goi Hezkuntzako Europako Esparruaren (GHEE) barruan zarataren mapak edo azpiegituren ikerketa akustikoak egiten esperientziaduna	Kontratista Aholkulariaren Delegatua. Bere zeregina garatzeko lanen koordinazio eta zuzendaritza teknikoa izango da	1	8 urte	% 15
2	Fisika, Matematika, Ingeniaritza Gradu edo Masterreko Teknikaria ziurtagiri akademikoarekin edo horietako lehengo prestakuntza akademiko baliokideak Goi Hezkuntzako Europako Esparruaren (GHEE) barruan zarataren mapak edo bide azpiegituren ikerketa akustikoak egiten esperientziaduna	Modelizazio akustikoaren, mapen eraketaren, emaitzen ustiapen eta emaitzen eta txostenak egitearen arduraduna	1	5 urte	% 80
3	Ingeniaritza Geomatika eta Topografikoan Gradu edo Masterreko Teknikaria ziurtagiri akademikoarekin edo horietako lehengo prestakuntza akademiko baliokideak Goi Hezkuntzako Europako Esparruaren (GHEE) barruan zarataren bide azpiegituretako topografia-lanetan esperientziaduna	Arduraduna mapak eratzeko kartografiaren tratamendu eta prestaketan eta TEEDM ministeriora igortzeko datu estatistiko eta espazialen prestaketan	1	5 urte	% 15
4	Informatika edo ingeniaritza Gradu edo Masterreko Teknikaria ziurtagiri akademikoarekin edo horietako lehengo prestakuntza akademiko baliokideak Goi Hezkuntzako Europako Esparruaren (GHEE) barruan informazioaren tratamendurako informazio geografikoko sistemetan esperientziaduna	Arduraduna sortutako informazioaren kudeaketarako tresna bat QGIS euskarrian garatzeko	1	5 urte	% 20
5	Administraria		1	2 urte	% 10

(1) Lanbide horiek edo kategoria handiagokoak, baina beti esperientzia zehaztua behar bezala frogatuta geratu behar da.

(2) Dedikazioa gutxi gorabeherakoa da eta kontratuko premien arabera gora edo behera egin dezake

3. ERANSKINA - JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

LANBIDEA (1)	UNITATE KOPURUA	ESPERIENTZIA (URTEAK)	DEDIKAZIO AURREIKUSGARRIA (2)	HILABETEAK	UNITATE PREZIOA	GUZTIRA
Fisika, Matematika, Ingeniaritza Gradu edo Masterreko Teknikaria ziurtagiri akademikoarekin edo horietako lehengo prestakuntza akademiko baliokideak Goi Hezkuntzako Europako Esparruaren (GHEE) barruan zarataren mapak edo azpiegituren ikerketa akustikoak egiten esperientziaduna. Egin beharreko lanak koordinatzea eta teknikoki zuzentzea izango da haren zeregina.	1	8	% 15	18	8.000,00	21.600,00
Fisika, Matematika, Ingeniaritza Gradu edo Masterreko Teknikaria ziurtagiri akademikoarekin edo horietako lehengo prestakuntza akademiko baliokideak Goi Hezkuntzako Europako Esparruaren (GHEE) barruan zarataren mapak edo bide azpiegituren ikerketa akustikoak egiten esperientziaduna. Haren zeregina izango da modelizazio akustikoa egitea, mapak egitea, emaitzak berrikustea eta ustiatzea, eta txostenak egitea.	1	5	% 80	18	7.500,00	108.000,00
Ingeniaritza Geomatika eta Topografikoan Gradu edo Masterreko Teknikaria ziurtagiri akademikoarekin edo horietako lehengo prestakuntza akademiko baliokideak Goi Hezkuntzako Europako Esparruaren (GHEE) barruan zarataren bide azpiegituretako topografia-lanetan esperientziaduna. Mapak egiteko kartografia tratatu eta prestatzea eta TEEDMra bidaltzeko datu estatistikoak eta espazialak prestatzea izango du eginkizun.	1	5	% 15	18	6.500,00	17.550,00
Informatika edo ingeniaritza Gradu edo Masterreko Teknikaria ziurtagiri akademikoarekin edo horietako lehengo prestakuntza akademiko baliokideak Goi Hezkuntzako Europako Esparruaren (GHEE) barruan informazioaren tratamendurako informazio geografikoko sistemetan esperientziaduna. Sortutako informazioa kudeatzeko tresna bat garatuko du QGIS euskarrian.	1	5	% 20	18	6.500,00	23.400,00
Administraria	1	2	% 10	18	4.000,00	7.200,00
GUZTIRA						**177.750,00**
% 13ko gastu orokorrak						33.772,50
% 6ko mozkin industriala						10.665,00
GAUZATZE MATERIALAREN AURREKONTUA, GUZTIRA						**211.522,50**
% 21eko BEZa						**44.419,73**
KONTRATA BAKOITZEKO EXEKUZIO-AURREKONTUA, GUZTIRA						**255.942,23**

(1) Lanbide horiek edo kategoria handiagokoak, baina beti esperientzia zehaztua behar bezala frogatuta geratu behar da.

(2) Dedikazioa gutxi gorabeherakoa da eta kontratuko premien arabera gora edo behera egin dezake